

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barriro esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euzkotarren ontzija
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxasora; 136. orrialdea. - Bilbo, 1931)

irrintzi isila (1)

εις τήν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν

(Gorgias, "Helena" 8-9)

JON GOTZON ETXEBARRIA

IRRINTZI ISILA

(I)

εις τήν ἑλευθερίαν
τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI-2335-88

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBAO

IRRINTZIKA

Duela urte asko hasi nintzen euskaraz idazten orduko aldizkarietan. Bartzuetan ni^haur konturatzen nintzen e^gindako idazlanak ez zirela beste munduko gauza. Baina, garai hartan bete^kizun argi eta preminazkoa zuten: eus^kalduntasunaren suari eustea. Eta po^zik egiten nuen laguntzaile lana. Noizbehinka barnean neraman kezka^ren bat oihukatzea izaten zen helburua. E^ta irrintzi bat egiten nuen, ahalik e^ta gehienek entzun zezaten. Erantzun biziak ere hartu nituen nire garraⁱsiaren oihartzun bezala. Horiek ere i^kusiko dute argia denboragarrenean. Bitartean, bihoaz orduko nire irrin^tzi biziak edo motelak, gertatzen zen^aren lekuko.

Orain batuan idazten dut gehien bat

joera hori sendotuz doalako euskara-
ren mesedetan. Garai batean, ordea, ara-
zoa konplikatua goa zen irakurle goaren
aldetik, eta jarduera eklektiko bat e-
do eklektiko gurakoa hartu nuen joka-
bidetzat. Joanak joan.

Orain, aspaldiko idazlan batzu aukera
tzerakoan, zeuden modu moduan hartu di-
tut, aldizkarietatik inprimaketa siste-
ma berrira pasatuz.

Edukinari gagozkiola, hauxe gaineratu
beharko: banaka batzuk gaurkotasuna ga-
ldu dutela; esaterako, "Jesukristo-ren
Erraiak" izenekoa, gaur egunean idazte-
ko ziorik ez dut ikusten; orduan bai.

Beste batzuetan, hitzak gogoan baino
harantzago joan zitzazkidan, agian? I-
jitoak eta gu" izenekoan, adibidez. Edo
ez nuen mamina behar bestean desailo-
rratu.

Dena dela, jakizu inoiz ez dudala bo-
rondate txarrik izan, nahiz eta garai
haietan, noizbehinka, odol txarra bai.

DON KLAUDIO ETA EUSKALTZALEAK

JOAN den igandean omenaldia
egin diote don Klaudio-ri bere
elizan kristau euskaldunek. Ondo
merezita. Bera saiatu baita geien, Biz-
kai aldean beintzat, kristautasuna eus-
kalduntasunaz bat joan dadin. Eta sa-
soi txarrean saiatu ere.

Bizkaiko eta Euskalerriko elizaren
kondairan zer egin eta zer ikusi izan
duen don Klaudio-k ez noakizue esa-
tera. Orretan nai baino jakitunagoek
aztertuko dute don Klaudiok egina eta
eragina. Bere nortasunaz, alde orreta-
tik begiratuta, zerbait esan zuen igan-
dean bertan Garcia Olano-k DEIA
onetatik.

Euskerazale eta euskaltzale garen aldetik ere zer edo zer diogu guztiok San Anton-go apaizari. Euskal liturgia bere eskuetan babesturik ikusi genuen, ekaitzak oraindik aterpe eta babeslekurik aurkitzeko eretirik ematen ez zuela. Euskal abestaldiak eta antzerki-saiok ere eman ziren bere eliza barruan, kanpoari giro ez zela. Euskerazko katekesia maitekero artu zuten bertan gure umeek, don Klaudiok monitoreak arduraz eta onuraz bere inguratuz. Elizako goiko geletan ainhät eta ainhät batu ziren egun gaiztoetan euskeraz ikasteko aleginez. Euskal argitalpenek bertan izan zuten kabia, euskeraren negualdia oraindik gogor samarra zela. Bere biotz'andi eta esku zabalari esker. Bere atektara eguneko edozein ordutan eskean datorrenari, nor nolakoa den begiratu gabe, ematen badaki, euskerari erruz eman dio. Jaungoikoaren izeneko gixajoa izanaz gainera gizonen izeneko zarpaildua bailitzan. Zirarda-ren egunetan gogotik alegindu zen Anaitasuna aldizkariaren alde, zeukaguntxoa arek ezabatu ez zezan. "Goazen" izeneko eliz-orria atera zuen beinola, kanpokoek ezikusia eta barruko batzuk ezin ikusia agertzen zuten bitartean. Euskalerriko kulturaz eta kon-dairaz ondo jantzia gure apaiz mardula. Amaika gazte bultzatu ditu berak euskal gaitan murgil daitezen. Eta Bizkaiko abadeei mila bidar esan die bere erritxoetan astiz daudenean bertako kondaira eta goraberez monografiak idazteko. Egina eta idatzia

or gelditzen dira lekuko eta atzetik datozenen aberasgarri eta zirikagarri. Orrela esan oi du

Bere luma sari erabili izan du anemengo arazoz irakurle erritarrak eskolatzeko. Euskera idatziaren arloan kritikariek esango digute, ots, krisis egile-eragileek, zein mailatan jartzen duten. Euskera biziaren arloan, berriz, bizi-arazle bikaina izan dugu. Bere "Galburutan" liburuan dakarren "Azkenetxe eta Kenenetxe" irakur-gaia orren lekuko.

Euskaldunak Jaungoikoarenganatzeke egin du guzti ori don Klaudiok. Eta Jaungoikoa euskaldunenganatzeke, noski. Guztiok geure elburuak lortzeko bideak euskal bidetik beretik zuzenduko bagenitu!

Orra andi-andika don Klaudio-ren euskaltzaletasuna. Urteetan aurrera doa. Gibel andiko gizontzat aurkeztu zigun igandean Garcia Olano-k. Baiezkoan nago ni ere. Baina gibelen besteko buru argi eta biotz zabalaren jaubea gainera. Denboratxoa dela, indarrak aultzen ari zaizkien basurde borrokalaria legez aipatu zigun don Klaudio euskal idazle batek. Ez dakit sasitzan ibiltzeko lengo beste indar ote duen basurdeak. Bai, ziur, bere kumeak aldezteko biotza gartsu eta matsetu darabilela oraindikarren.

("DEIA", 1978.ko apirilaren 26)

ERRATA: 7. orrialdean

27. lerroan ZAIZKION

ESKOLA

MAISUEK

Langille guztiek saria merezi dute. Ta besteekiko saiatzea ere zordute. Olan dira, izan ere, elkarrenganako betebearrak. Baten edo besten uts egin lezakeena urkoarenganako uts egitearen errudun daiteke.

Noraiño alegintzen diran besteengana ez noa esatera. Ez bait dut berri zeatzik. Nola ari diran alegiñeetan bai, zertxobait esan nezake. Orretaz jakitun ipiñi naute euren arteko batzuek. Maixu-irakasleez ari naiz, gero. Ez ditut danak saku batean sartuko; batzuek darabilen jokua aipatu egingo dut soil-soillik.

Irakas-tokirik ez dutela, bear bestean-eta, naikoa zarata atera digute oraintsu. Ta nondik datorrela makur ori uste duzue?

Ara: eguneroko orduetz gain, geigarri moduan, «permanencias» dertizaten egonaldiak egiten dituzte, antza, umeek egunean egunean eskolan. Ta ortik diru nordoxka atera ere bai maixu batzuek. Zenbat eta ume geiago batu, illeroko irabazi andiagoa, jakiña. Ta, poltsa gizenari begiratuta, talde biko edo umeak batean bildu oi dituzte buru argi zenbaitzuk. Ta orrela taldeak gutxiagotu egiten dira-ta, beste maixu lagunek jai irakaste-arloan. Errudun nor? Errubakoak nortzuk bai ba-dakigu, umeak-eta.

Orri buruz ere jazokun polita entzuna dizut: bateonbateg, ikastaro asikeran, umeeri kontu zeatzak artu: zenbat neba-arreba diran, zelako bizimodua duten gurasoek, eta ortik garbi atera ia gurasoek ume orri «zorioneko» egotaldi oiek ordaintzeko beste diru ote duten. Aski euki ezik, ez dizkizue beren eskolan artuko ta beste bati egotzi.

Zenbait maixu-maistrek ori egi-teari gaizki deritzagu. Ala ere, goikoek joku orri bide librea uzteari, azkozaz gaizkiago.

("Bizkaian Eleizea", II,
1976garreneko urrian)

ERRATA: 9. orrialdean

25. lerroan MORDOXKA

AURKEZPEN BAT

Urrillaren azkenengo ostira-lean, arratsaldeko seiretan, aurkezpen jakingarri bat egin zan Donostia'ko Diputazioko Areto Nagusian: Euskal Iztegi Araue-maile Entziklopedikoaren Projektoarena, alegia.

Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Probintzialak babespena emanik, 1980'garren urterako irarkolan sartzeko prest eukiko du Iztegi ori Ibon Sarasola jaunak.

Sarasola'k berak esan zigunez, sei illabeteko epeetan, amar epeetan, gero, asiko da len edo oiñarri atalak aurkezten. Zerrenda bitan emango zaizkie euskaltzaiñei probak edo diralokak. Batean berak dakarrena ta bestea euskaltzaiñek ipiñitako oarrak Aurkezpenean Villasante'k, Ayestaran'ek eta Sarasola'k euskeraz egin ziguten itz. Julio Abad, Egia ta Mitxelena (San Martin euskaltzaiñak irakurritako eskutitzaren bidez) erderaz mintzatu ziran.

Oraindik goiz da iritziak emateko, lanaren asikiñak ikusi gabe. Ala ere, Ibon Sarasola'ren itzetatik itxaropen ederra sortu zitzaigun. Iritzi aski egokiak azaldu bait zituan eta seriotasun osoz dabillelakoan gelditu giñan.

Villasante'k argi esan zuanez, oraiñarte jazo ez dana dakusagu euskeraren aldeko ekintzetan: altsuen kezka, aberatsen laguntza ta langilleen ekiña iñoiz baiño baterago. Baterago ez ezik, luzean ere iraunkorrago ba'lira, oraiñarteko Kontrapas ederrena abesteko zorian giñake: Euskara jalgi adi plazara. Zuk plazakoak baiño bearrago zaituzte zu plazakoek!

("GOIZ ARGI", ...?)

JESUKRISTO'ren ERRAIAK

Oraintsuko gertaerak dirala-ta, Donosti'ko gotzaiek itz larriak belarrietaratu dizkigute eliztarreri: Jesukristo'ren erraiengaitik, arren, baketan egoteko.

Uste dut arrazoiak egon litezkela minduta gure Jaunaren erraiak, gure jokabide batzuk ikusita. Ala ere, beti kasu batzuetan garrazika ta bestee-tan ixilka oi diran ezkerro, pentsatze-koa ere ba-da, ia Jesukristo'k erraiak ezkerreko alderdian ote dituan. Eskui-aldetik kolpeak artzen dituanetan min-oiñazezko itz erdirik ere ez dute ateratzen-eta.

Dana dala, gotzai oiek gu baiño teolojilari obeak dira-ta, obeto jakingo dute gure Jaun Zerukoak bear duan terapia egokiena. Jakiña, gexo andi, arriskuz beterikoetan, emplasteruak ixilpean obe.

("BIZKAIAN ELEIZEA"...?)

NEGOZIAGAI ETA NEGOZIOGAI

Amnistia ez dala negoziagai diote aspaldion orma eta esku-papelek. Bat nator iritzi orrekin neu ere bai. Ez naiz lege-gizona eta ez naiz sartuko auzi ori eztabaidatzerara. Bego argi, jakitunek ateratako ondorena bezala.

Ala ere zertxobait gaiñeratuko nuke. Slogan, orren aldekoak dira askotan gure erriarentzat elebitasuna eskatzen dutenak. Euskarentzat ofialkidetasuna «esijitzen dugu» buru-belarrietan sartu digute eten gabe. Bai asmo ederra! Emaiogun indarra, aal bestean, danok.

Ala ere... or datozkigu neska-mutil mordoxka Gernika'ko jaialdian, pelota-lekuan, papelak saltzen. Saltzailleak guztiak euskaldunak. Erosleak berdin. Jende-itsaso aretan arrantzan egiteko aukera berebizikoa. Amua, bota, amuzki gozoz, eta arraiñak zenbat gura arrapatuko, bai orixe. Amua, saltzaille euskaldunak. Eta amuzkia? Saltzen zuten idaztiñoaren atze-aurreko azalak. Bi-biak

euskerazko tituluekin, noski: Amnistia denontzat. Olako jaki aurrean nork ez aginka? Eutsi, bost ogerleko ta ekatzu. Idazkia zabaldu, irakurtzen asi ta dan-dana erdera utsean. Espetxean dagozanen egokera larria ta zuzengabea guri azalduz.

Benetan bizi latza ta jasan-gaitza gure mutillek! Bultza dezagun, zuk andik nik emendik, barrukoak gure artean ikusi artean. Baiña, tituluak euskera utsean euskaldunak engañatzeko ta mamia erdera utsean. Ez mutillak. Amnistia denontzat ez zenioten, ba? Euskarentzat ere bai. Barrukoak etxeratu bai, baiña ez euskera «Barruratuz».

Oraingoan, idaztiño ori zueri erosita gerc, euskaldun gizajoak, iñozoak engañatzera etorri zeratelakoan gelditu nintzan Gernika'ko jaiian.

Amnistia ez dala negoziagai? Ez orixe! Alabaiña, gure euskera ez dugu negoziogai! Jakizute bein ta

betiko, saltzaille merkeok! Gu euskaldunon lepotik ez duzue parerik egingo geiago, ezta sakelak gizenduko ere. Etorri zintzo-zintzo guregana, zeraten bezalakoak. Premiaren orduan ba-dakigu erdaldun ta erdalzaleeri ere laguntzen. Zuek bestera egiten ez ba' duzue ere, guk gure itzari eutsiko diogu.

("GOIZ ARGI"; 26, 3, 1977)

Gernika-ko "Aizerrota"

ibili dabil

Azkenengo larunbatean, eguerdiko 12-etan Gernikan, "Aizerrota" atzeratuentzako lantegien inaugurazioa izan zan. Antxe ikusi genituen inaugurazio egunean ainbat gernikar jaor laguntasuna poliki egin dutenak: Ramón Fradua, Javier Zorrozueta eta abar. Bilbotik etorritakoak ere bai: Lanaren Inspektora, SEREM-en ordezkaria, Bizkaiko atzeratuen Elkartearen Astorki eta Talleren arduraduna, Aldekozea Gernikako atzeratuen Elkartekoa eta udaletxetik etorriak ere bai. Baita "Bizkaiko Aurrezki Kutxaren" zuzendaria ere. Eta erria: Erriak ederki lagundu du guztian, bai bazkideek eta bazkide ez diranek ere.

Lendiko historia

1970-gn urte inguruan egin zuten lenengo batzarrea "Jesusen Biotzaren" ikastetxean gernikar batzuk, euren atzeratuen arazoa azieru eta konpontzeko asmotan. Nonbaitetik asi bear eta Deunore Labauria-k denda edo saltoki izandako lokal batzu eskatu zizkion Sarrikolea-ren alargunari. Baita beronek pozik eta duan utzi ere. Bertan ofizina moduko bat jarri zuten. Larunbata eta jaietan bilt-

zen ziren bertan umeak, asiera aretan Rosario Ajuriagerra alma mater zelarik. Geroztik Bermeotik datorkie laguntzaile sozial oietariko bat. Bitartean, preminazkoena egin bear, zenat atzeratu dauden Gernika eta inguruetan, alegia. Anartean, F. Sampere lengero lendakaria.

Aurrera, naia

Ura gutxi eta eskas zela-eta, batera eta bestera asi ziren. SEREM-ek ederki lagundu zien, lonja batzu erosteko dirua inguratuz. Eta ortxe ipini berri dituzte erriko eta inguruko atzeratuentzat taller batzu: Sukaldea, jantokia eta euren tresnak. Guztiz 300 m2. Oraingoz host mutil dabilta, berrogeitarentzat lekua izanik. Zentsotik agertu-ala heteko da dena. Ramón Bilbao-ren maisutzapean. Ta zer nolako lana dagie umeek? Bizkaiko zenbait lantegitik bidaltzen dizkieten tornilloak-eta ipiñi eta errenate-lana, andiena. 800 pezetako irabazia gelditzen omen zaie mutilei ilean. Eta bizitzan zerbaiterako gauza ditelako poz eta aurrerapenaren irabazia gainera. Goizean amabi eta erdiak arte lanean. Bertan bazkaria jan, bar batetik ekarrita, eta mutilek eurek epiten dute arikoa eta dena. Arratsaldean host eta erdiak arte. Jakina: orretan diar-

dutenak, atzeratu erdizkoak eta arikak dira. Sakon-sakonak ez dira gauza lanbide orretan aritzeko.

Oraindik ametsetan

Berotasun guztiaz jarri da jendea orren alde. Esaterako Barbier jaunak bere margo-lanak erregala egin zituen zotz egiteko. Bolina Barriko ugazabandrak maitekiro merienda on bana ekarri umei noizean bein eta abar. Erritarren laguntasun ederra ikusita ametsetan daude guztiok. Udaltzak lur batzu eman dizkie atzeratu guztientzako eskola on bat egin dezaten. Berrogeitamar urtegarrenean ibili ezean, atzera eman bear lurrok. Eta orixe euren ametsa eta kezka.

Egingo ote duten. Edo egin al izango ote duten. Gernikalde guztian, oraindik zentsoan sartu gabe daudenak alde bat, 300-tik gora ei dagoz orren bearrizanean. Merezi du, bai, etxe on bat egitea, umeok ari eta ezi daitzen eta al duena ere osatu daiten, zerbaiterako gai eginaz.

Nork biurtuko ote amets auek egi pozgarria? Orrelako lanetan sartzeko, gaur egun, diru-etseek edo lukete itza beste inork baino arinago eta egoikiago. Geroak esango.

("DEIA"...?)

ORREZ GAINERA...

Agur jauna: zuen amabostgarren zenbakian Euskara batua dela eta idazki polita ta neurritsua agertu duzue. Zorionak. Zentzunez eta pisuz eginga baita lan ori. Ala ere, H-ren auzia agertzean simpleegi edo eskasegi diarduzue, ene ustez. Batzuk ideologiaz darabilte la ta bestetzuk ideologiaz baztertzen dutela, besterik ez. Antxinako edo lenengo euskal idazleak kontuan artu gabe (ipar eta egoaldekoak), egia da gure egunetan, batasunaren arazoa edo auzia kaleratu ta guztiengana-tu zenetik, batzuk ideologiarrazoiak darabil-tzatela H-a sartzeko, eta berdin, ba-daude ideologi-arrazoiak dituztenak erabili ez egite-ko. Alabaina, ba-dira euskal idazle oso onak ideologiarik ezertan gogoan eduki gabe H-kin idazten dutenak; era berean, ba-dira euskal idazle batzuk ideologiarik ezertarako kontuan artu gabe H-rik ez darabiltenak. Batzuk eta besteak (oker ala zuzen, besterik da) estetika, praktikotasun, erreztasunarengatik-eta dagi-te. Bitzuok zer dioten jakiteko begiratuko dio-te ideologiari; baina, nola (nolako idazkeraz) ari diren ebazteko, ez dut uste ideologia-ametsik egin bear dutenik. Esaterako, neure idazkitxo au H barik dator. Mesedez, ez pent-sa ideologiarik, ideologia-ezarik edo anti-

ideologiarik azaltzen denik, apurrenik ere ez, nire lerroetan. Erreztasun edo praktikotasuna da arazoa, soil-soilik (oker ala zuzen, saiatuko naiz martxan gainean aztertzen).

Orixe. Zuen lanean zeniotena egia dela. Baina, orrez gainera beste au ere bai. Eskutitz au argitaratu edo ez, jarrai dezazutela euskal-dunen aldeko lanetan.

("GARAIA"; 30. zenbakia)

OMENA-ALDIAK

Azkenengo Z.A.-n irakurrit Beltza eta Harkaitz-eri (Pagazaurtundua-ri) omenaldia egin dietela Amezketan. Zuen aldizkariak dakarrenez enekin artu zituen Pagazak bere euskerazko lenengo eskolak. Deustu-n, ain zuzen ere, asi ziren ematen udaldian goiz eta arratsalde guztiko kursilo batzu.

Bere eriotzaren eguneko atsekabea berriztu egin zait zuek esandakoa irakurtzean. Pinudietan entresaka egiten aritu zela klaseak ordaintzeko. Jakin bage-nu guk orduan! Guztien arten bai pozik lagunduko genion. Baina, mutila aberriaren alde ixilean lan egiteko jaioa, nonbait eta ez zigan ezertxo ere esan orretaz.

Ala ere, besterik esan gura dut gaur, bere abertzaletasunari omen beteagoa egiteko. Eskolatik irten eta, ba dakizu, askotan tertuliatxo bat egiten genuen, kontu kontari. Berak askotan aberri-azua edo arazoa atera.

*Orrelako gaietan sarberria izaki eta gauza simple batzu esaten zitu-
en (gu bezalako amorratuetan-
tzako simpleegiak; gu ordurako
ideia aurreratuetan sartuak gi-
nen-eta). Eta barre egiten ge-
nion. Mutila erdi kikilduta geldi-
tzen zen. Baina, ez du ardurarik,
esan zigun. Nik sarri aterako di-
tut olako gaiak; eta bota bildur
barik. Oraindino asi berria naiz
eta erriko barretan edo lagunar-
tean eztabaida asko sortzen da,
hai, eta nik zer erantzun edo no-
lako eta norainoko arrazoiak
eman ez dakit askotan. Zuek
esan, esan; aterako ditut nik ar-
gumentoak ango gizonei eran-
tzuteko. Mesedegarri zaizkit
emen entzundakoak, gero abe-
rria aldezteko.*

*Eskuetan lehertu zitzaion
bonba baino leen, beste lehergai
bat zebilkion barruan, antza.
Euzkadirenganako maitasuna,
alegia.*

*Gaur aren argazkia zuenean
ikusit eta pentsa eta pentsa, auxe
bururatu zait: olako jendeari*

*omenaldiak egiten gabiltza? Al-
diak geuk ipini ditzakegu; ome-
na, ostera, berek daramate beren
nortasunarekin edonora doazela.
Bere zorion-lekutik auxe gogora
biezaigu guztiori: barneko mai-
tasun-lehergailu (aberriarengana-
koa) eraman dezagula edonora
bildur gabe.*

("ZERUKO ARGIA";
1977, abendua)

ARGI DAGO... ETA OKER

Bizkaia'ko zenbait ikastetxee-
tan asi dira euskerazko eskolak
ematen. Edo ikasle-gurasoek es-
kea egin dutelako edo agintariek
eskubidea eman dutelako.

Ikastetxe batzuetako zuzenda-
riak ez dira bat ere euskaltza-
leak, guk dakigula. Ala ere, ortik
irabazia datorkielako edo jendea-
ren ederra irabazten dutelako,
euskera ikasgai bezala sartu di-
gute. Dana dala, eurentzako ira-
bazia, nondik edo andik begira-
tuta. Ala ere... presupuestotik
eta beste ikas-ordutatik kanpora.
Ori dala-ta, naasteak eta buruaus-
teak sortzen zaizkigu sarritan.
Ikasle batzuk ezin dutela bear
dan moduan edo orduan etorri;
egunetik egunera orduak alda-
tzen, ordutik ordura programake-
ta beste era batera egiten, eta
abar.

Zeintzuk zuzendari diran eus-
kaltzale ta zeintzuk ez; nortzuk
jabetu diran guztiz euskeraren
garrantziaz eta gunaz eta nortzuk
ez. Orrelakorik ez noa emen esa-
tera.

Gauza bat esan bear dut, ordea, esateko premia larria dagoelako: euskerarekin zuek dirua irabazi edo galdu zenezakete. Euskera irakastearekin gizarte-aurrean arto edo lasai agertu zindezke, maitagarri batzuen aurrean edo gorrotagarri beste batzuen aurrean. Guzti ori zuek erabaki. Geuk geurea erabakiko dugu, edo erabakita duguna agerraziko bein ta betiko: guk euskera onetarakoxe ikasten diardugu: geuron buruak euskalduntzeko, geure erri zaararekin bat egiteko, gure etorkizuna ederrago izan dadin, geure kultura sakonkiago ezagutzeko. Zeregin guzti oiek auxe eskatzen dute dannon aldetik: Euskerari, euskalduntasunari ta Euskal Erriari lotsa, errespetua ta seriotasuna agertzea ta danetan bear dan bestean ematea. Orixe, besterik ez. Emaiguzue, beraz, zor zaiguna. Dirua irabazten ba'duzue edo iñoren ederrá irabazten ba'duzue orrekin, guri ez digu ajolarik. Ori zeurok konpondu. Gug geurea konpontzea nai dugu. Orixe, besterik ez.

("GOIZ ARGÍ";12,II,1977)

ERRATA:26. orrialdean

29. lerroan GUX

IZANA ETA IZENA

Izena duan orok izana ere ba-du, antxiñako esaerak dionez. Nik ere izena ba-dizut eta nola-ko izana ote dudan, ez zaitez asi aztertzen, mesedez! Azaletik mamiñera joateko asmorik ez dut gaur-eta. Bestela nabil. Izan-nak, izateak, izatekoak eta izan-goak kezkatu naute batik bat oraiñarte. Izanari nagokio. Bear ez dudana izana damu duket edo bear dana ez izana.

Ala ere, izena ez da bertan be-
era lagatzekoa. Beintzat, izena-
ren bidez azaltzen natzaie lagu-
nurkoeri, lenengo agerraldietan.
Euskalerrri guztia euskeraz mur-
gil egiñik, blai-blai ba'lego, ez
dakit gaurkoa idazten asiko nin-
tzan. Baiña, zoritxarrez, euskal
usaiña, euskal kutsua ez da na-
barmenegi gure inguruetan. Goi-
tik eta beetik, ezkerretik eta es-
kubitik erderak menperatzen
gaitu, goiz eta arratsalde. Batek
bakarrik uts egingo ba'lu, ez li-
tzake bildurrik. Alabaiña, guz-
tiaren premian gagozela, batek
geiagok laguntzen ba'du, ederki.
Orretantxe nator. Neure aldetik,
al dudantxoa laguntzen. Nola?

Diotenez, papel guztiak, iragarki
guztiak, inguru guztiak euskera
daritela dagozenez... euskal-
dunduko dugu Euskalerrria. Ori-
xe opa, nai dut nik ere. Nire ale-
gintxo. Begi guztiak, buru-be-
larri guztiak, euskerara oitu dai-
tezan, papel ta agiri guztiak eus-
kal modura jarri daitezkan. Beste
arrazoirik ez nuan aurkitu orai-
ñarte orretarako ta orretxegaitik
idatzi dut berrogeta urtean erde-
raz, ipiñi zidaten bezalaxe, nire
izena. Gogo andirik ez nuan ize-
na aldatzeko. Baiña, Euskalerrria
aldatzeko (Euskalerrria iraraute-
ko) bai, gogo bizia nabaritu dut
beti. Ori dala-ta, zirt-zart, izena
euskerara aldatzeko erabaki sen-
doa artua dizut gaur. Zelan edo
alan, euskeraren oiartzunak be-
te ditzala euskal bazterrak. Esan
eta egin: biar bertan noa Erre-
jistrora. Ipiñi dezaidatela izena
euskal jantzia: Jon Gotzon.

Bearbada, neu lenengoa orre-
kin pozik gelditzen ez naizena.
Ala ere, euskeraren uiolean neu-
re tantatxoa bota bear dut. Neu-
re burua apur bat edo guztiz
ondatzen ba'dut ere, anditu dai-
tela euskeraren itsasoa neure le-
potik.

Bitartean, Erregistroan nire
eskaria onartu ta betetu artean.

("GOIZ ARGI"; 12, II, 1977)

ERRATA: 30. orrialdean

2. lerroa ESKARIA

Korpus Eleiza

Agur jaunak: Korpus eleiza bota bear dutela-ta, askok eta askok idatzi dute, geure eleiz-orri onetan eta baita lenago «La Gaceta del Norte»-en ere. Beste arrazoiak noraino balio duten ez noa esatera. Bearbada sakonegi dira niretzat. Ala ere, bi dira, batez ere, orainarte-koetan bat ere betetzen ez nautenak. Bilbotarrak emandako diruari esker jaso zala. Eta, zer? Eleiz ori, ortxe, eurentzako ta euren gogoko tankeraz jasotzeko eman al zuten dirua? Ala Eleiza, eleiza dan aldetik, bere premiñetan laguntzeko zabaldu zituen sakelak? Gaurko Eleiza-ren premiñak zeintzuk diran ikusi astiro ta argiro ta auzi orren arauera erabaki bestea. Bestela, ba-dirudi Jainkoari zerbitzu-leku bat jaso bearrean, eurentzako «geuron» oroi-leku bat gura dabela. Ta bigarrena onengandik urbil dabillega uste dut: Erregeen Erregeri alik eta etxe apaiñena zor yakola. Baita. Eleiz berria ez bedi edozelango lonja ar, edonun ta edozelan jasota. Ezta urrik eman ere. Alabaiña, torrea onenbeste zentrimetokoa, ormak olako lodierakoak eta barnea arelako apaintasunaz ornidua bear ditugu. Etxegintzan dabilzanak, dirua ta borondate ona euki ezkerro, ba-dakie gaur egun etxe egoki-dotoreak egiten. Bien bitarteko neurriak gordeta. Jainkoari txabola bat eskeini? Ez baina, udal-etxeko etxegintza ta urigintza-planoetan sartzeko entxuferik eman gabe.

("BIZKAIAIAN ELEIZEA"...?)

 ERRATA:31. orrialdean

23. lerroa ZAR

«DIALOGO» EZIÑA

Ari dira, ari zaizkigu, zenbaitzuk txintxo-txintxo lanean, euskal agerkariak ugaritu direnez gero, baitik bat. Orra non datorren Bilbotik «Euskalerrria» izeneko aldizkaria. Multikopiaz eta multiutsaz...

Denporatxua dala, atera berri dute lenengo zenbakia, amar laurlektan salgai. Saldu ez ezik, buzoietan sartu ere egin diete zenbait euskaltzaleri, Bilbo aldean, beintzat. Orren esku-zabal zaituegu, ala erosleak esku-motz?

Euskalerrira dei egin duzue-ta, bioakizue ene barrutiko oiartzuna. Erdera-euskeraz atera duzue, izen nagusiaren ondoan auxe ipiñiaz: «Opini3n - Informaci3n - Di3logo». Goazen astiro, ta gaingiro, erantzutera: OPINION: bakoitzak berea, jarkiña. Ezagun duzue zeuok ere. INFORMACION: oso atzeratua, eska-sa ta aldrebesa. Euskeraren aldetik ere kezkatu-rik zatoze. Beste erdera-euskerazko aldizkari-eri euskera geiago sartzeko eskatzen diezute. Ta zuen erderazko artiku-ko ori, euskera bigarren maillako izkuntzatzat jotzen duana? Batasuna dala-ta, artega zaziltze onako sloganak orri

batzuetan sartuaz: «El vizcaino libera, el batúa oprime» - «El guipuzcoano libera, el batúa oprime». Noiz, nola ta nori, mutillak! Aizto batek ere, kirtenetik barik sorbatzetik oratu ezkeru, ebaki gaiztoa egin lezake eskuan. Ta zuen euskera... deprime! Biurriagorik, nastuagorik eta buru-buztangabekoagorik ez dakizue egiten? DIALOGO: dialogo itzak elkar-izketa esan nai du, besterik ez. Ta zuek, ez irarkola-ezau-garririk, ez zuzendari-izenik, ez zuzendaritza-agiririk ez daukazuela, nola izketaratu gintezke zuekin?

Euskal-alorrean gabiltzanok aspalditxotik dugu elkar ezagutzen. Solo erditik naiz solo barrenetik ibilli, beti elkarri aurpegi erakuska.

Premia ba'letor, ba-dakigu noren-gana jo laguntza-eske edo lagunduzale. Zuek, berriz, solotik kanpo, aparte, urruti ari zerate. Benetan Euskalerrria goiburutzat ba'dakar-zue, ager burua, erakus aurpegia, etor urrago auzo-lanera. Elkar-lanean eta itz-aspertuan ba-dukegu aukera ederrik! Ala ez?


("GOIZ ARGÍ"; 19, II, 77)

Ikastola berria

Atzo izan zen Bermeon ikastola berriaren inaugurazioa, Arene izeneko auzunean. Lenagotik Santa Eufemia zeritzan ikastolan euskal lanetan ari baziren ere, orain 9 urte gogoratu zitzaizen bermeotar zintzo batzuei Irakaskintza Elkargo bat sortu bear zutela. Eta Eleizalde Elkartea eman zioten izena. Ain zuzen ere, giputz ospetsua, euskal irakaskintzaren arloan ainbeste saiatu zena, bermeotar batekin bait zegoen ezkondata eta errian bertan dago lurperatuta.

Ekin eta bultza, 407 elkargokide dira gaur egun, lurrak erosi, gauzak antolatu eta or dauke beren neke-izerdien emaitz ederra. Ohizko eragozpenak eta Gotzainak eliz-lurrekin eginitako joko zikina gorabera. 640 bat umerentzako toki bikaina. Ikasgela eder-zabalak. Jolastoki alai-andiak. Nai dutenentzako jantokia, liburutegi apaina eta abar.

Oraingo 8 ikasgelak eta atera gura dituzten beste zortzirak ordaintzeko



Bermeoko ikastola berria, ikurriña jasotze unean

IMANOL ARTEAGOITIA

buruauste gogorra, benetan. Etxegintzako Kreditu Bankoari esker da doaz aurrera eta bear duten enparaua iru Bazkunerri eskatuta: CAV, CAM eta CLP-ri.

Gure erriko jendea euskaldun eta jakitun egiteko bide ezin ohea. Ilaren 18an asiko dira bertan umeak 18 maisu-andereñoren laguntzarekin lanean. Aurtengo ikastaroan 410 ikasle. Eraman-ekarria egiteko autobusaren probaldia egin zuten eguneko ume kezkatuen ateraldia: Nik ikastolara joan gura dot eskursinoan!

("DEIA"; 8, IX, 1978)

ERRATA: 38. orrialdean

2. lerroa BA

Euzkadin, erderaz; Espainian, euskaraz

Egoera guztiz normal batean Euzkadin euskaraz eta Espainian erdaraz jabetuko litzateke gizona. Baina... urteetako zapalkeria, indarkeria, maltzurkeria eta axolagabekeria direla bide atzekoz aurre jarri zaizkigu gauzak euskaldunoi.

Gure euskarak atzera egin du lurralde andietan: beste batzuetan malkaldu edo jende-aurrerako lotsaz esaldtu. Uri andietan batez ere. administrazio, politika eta gizarteko arremangatik ez da erraz euskal girorik aurkitzen. Milaka etorkin ditugu, gainera, samaldan etorrita edo eratorrita. Bestetik milaka eusko seme joanak dira atzerrira ogibidea obeagotzera edo lanbidea errazagotzera. Espainia barruan eusko eta euskaldun geien dagoen tokia Madrid da.

Eta azken urteotako aberri aldeko erreakzioa Euzkadin ez ezik, Euzkadi-tik kanpora ere aski nabari izan da alderdi eta arlo guztietan. Kulturarekiko ikusiko dugu pizka bat. Madril-en 1974garren urtean San Migel Aralar-koaren Elkarteak sortu zen. Euskarazko meztara jaiero joaten zirenak maizago eta sakonkiago elkartzeko

asmoz. Gero ortik Euskal Etxea etorriko zen. Beren elburuak euskal mai-tasuna, oiturak eta izkuntza gorde eta iraunaraztea. Itzaldiak, musikaldiak eta abar antolatu dituzte. Eta zer esanik ez, euskarazko eskolak ere bai. Ona omen iazko eskolen zeaztasunak.

Bost irakasle izan dira. Marina Olabarria, Elizabet Yartza, Eskarne Zuberu, Rosario Arana eta Koldobike Natxitube, eta "Euskalduntzen". Oñatibiaren eta Euzkerazaleen irakaspi-deez baliatu dira eun eta ogeita emerretzi ikasleentzat. Oietan, bi arabarrak ziran, ogeita emezortzi giputzak, amaika naparrak eta ogeita emerretzi bizkaitarrak.

Esan digutenez geiago ere izan dira, erantzunik garaiz jaso ez zutelako, laukian agertzen ez direnak, eta eun eta ogeita emerretzietaraño falta direnak Euskalerritik kanporakoak dira. 49. au da, % 35 edo.

Euskaldunak ez direnen artean badaude Aragoikoak, Goi Ameriketa-koak eta beste zenbait atzerritar. Gazte sueziar bat zebilen bertan ikasle. Ienago Iruña-ko bere egonaldian erdaraz ikasitakoa. Eta orain non eta Madrid-en bere burua euskaldundu!

Madrid-en bizi zaizkigun euskaldun eta euskaltzalei gure zorion-agur beroena bidali eta besterik ere pentsatzen asiak gara.

Kanpotar bat gure artean erdaldundu eta erbestean euskaldundu bada, zenbaterainoko fruitua atera genezake gauzak osoro normalduz gero! Atzerrian euskalduntasunari eutsiz gainera gure aberrian bertan egoera zuzen eta egoki bat lortuko bagenu! Administrazioa, irakaskuntza, ageriko artu-emanak maila guztietan euskararen aldekoak edo euskarazkoak balira, sueziar baten lekuan milaka kanpotar eta mundutar egingo genituzke euskaldun edo, gutxienez, euskararekiko arduradun eta kezkadun.

Euzkadin sueziar baino euskotar geiago delarik, orainarte gure prentsan askotan iltxartelek betetzen dute euskararen euneko zati andiena. Aurrerantzean bizi-agiriekin osotuko al dute zati ederrena! Geure eskuetan eta biotzetan dago.

("DEIA"; 13, IX, 1978)

PSOE-ren ELEBITASUNA

LASTER elebitasuna omen dugu. Euskera ofialkidesunez jantzia eta ornidua. Oraingoan gure izkuntzaren egoera zuzenduko omen. Ez nik uste. Len bizi ezinak larritu baninduen, orain iraun ezinaren larriak lotzen eta kezkatzen nau biziki. PSOE-tarren asmoei jaramon eginez gero, beintzat.

Alderdi oietakoez diotenez euskaldun errietan euskaldun bearko dute izan leku ofizialean daudenek. Baina erdaldun errietan kokaturik daudenak ezin beartu euren buruak euskalduntzera. Erraztasunak eta aukera emango zaizkie azken batean. Ezin lasai eta pozik egon ni.

Elebitasunak errialde edo lurralde baten ele bi egiten eta erabiltzen direla esan gura du. Eta askatasun giroan edozein biztanlek eskubidea duela berea duena, bere gogoko duena, erabiltzeko, gauza ofizialean ere bai.

Euskaldun errietan euskera-erdera jarriz ba datozke lasai lasai erdalduak ere bere auziak garbitzera. Nork jaramon aurkituko dutelako, euskarak erdera bearko du laguntzat-eta. Baina, bestera balitz?

Erritarrak eskubidea du, oso osoan, naiago duena aukeratzeko. Bizibideak eta bizibearrak erakutsiko diote bereaz gain besterik ikasi bearko ote duen. Agintariek eta leku ofizialean esku dutenek, ordea, ez dute aukerarik. Bein leku oietan ipiniz gero, guztientzako baitira bizi-auzi eta buruasteen arduradun. Administrazio eta errigintza mugarik eta baldintzarik gabe denentzako antolatuak eta atonduak badira, nire gain eskubide osoa eta beteak badute, nirekiko ardua eta betebearraren zorra dukete. Ofizial-dunok euskeraz zein erderaz jaramon egin bearko didate. Ez al dira guztientzako agintari?

Esaterako, ni Gernika-ko udaletxera banoa neure arazo bat konpontzera, ederkí, euskeraz erantzungo didate. Eta Santurtze-ko udaletxera idatzi bear badut, esate baterako paper batzu bidali diezaizkidaten? Elebitasunari oratu eta euskeraz egingo diet eskabidea. Orixe aukeratu baitut nire lurrean bizitzeko izkuntza bezala. Aiek, berriz, erdararen mugan daudelako euskeraz jakiteko preminarik ez badute, erdera erabiltzeko beartuta neu ere. Non gelditzen da elebitasuna, neure errian neure izkuntza erabiltzeko eskubidea? Ala aiekiko zorra, erritar legez dudana, beste baldintza batzuk mugatua eta zertua ote? Baldintza berdinetan banago Euskalerni

barruan, dagokidan eskubidea beti bat. Ofizialtasunak eman eskubideari ofizialtasunagatik uko egin bear? Ustedut PSOE-koa izan barik argitu litekeela arazoa.

Ba dakit zaila dela goizetik gauera mundu ofizial osoa euskalduntzea. Baina, epe baten barruan euskeraz jabetzeko bearrianik ezartzen ez bazaie, ba dakit askok eta askok ez dutela inoiz ikasiko. Gogorik ez duenari erraztasunak ematea, lengoan jarraitzeko adina erraztasun ematea da. Aukera baino ez badu olakoak, aukeraren ederra... azkenean okerra gerta daiteke.

Lenengo egunetik ezin izan guztiak euskaldun erdal errietan, naiz eta leku ofizialak izan. Ofizial izateak zenbaterainoko erraztasuna ematen duen ez dakit; bai, ordea, betebearra eta erantzukizuna dakarrela berekin.

Guztiak ez bada ere, egon daitezela leku ofizial guztietan, lenengo egunetik, euskeraz dakiten batzu, nongo eta nolako lekuak diren gogoan arturik. Udaletxcetan eta beste ainbat lekutan, bat gutxienez izan daiteela euskaldun euskaldunen eskari edo eskabidei erantzun al izateko. Adibidez, Bizkaiko erdal.udaletxe batean beintzat, euskal itzaultzaile bati lanbidea eskatu eta eskaini zioten, denpora asko ez dela. Ori lortzeko ez dut uste kurtsilo berezietan denpora asko galdu beariko denik. Orretan gramatikak baino

geiago diruak du zerikusirik. Dena dela, euskera-erderaz zona hertsia egiten badira, eskubideak ezberdin eginaz, izkuntzaz aparte beste arloetan ere eskubideen arazoa aztertu beariko litzateke. Auxe baita eskubide andiena eta nagusi: Eskubide guztiak guztientzat berdin izatea.

("DEIA"; 2, III, 1973)

“ HOLLANDRESEN IBARRA ”

Aspaldiko lagun zintzoa dut Julen Kalzada apaiza. Bera ez da bere burua agertu eta, are gutxiago, erakutsi-zale. Ala ere, ekiñaren ekiñaz dato batzuk atera dizkiot Holanda'rako bere joan-etorriaz. Ortik gorako iruzkin ta iritzirik, bat ere ez. Bijoakizue, beraz, dato zerrenda uts bat, besterik ezean. Bera plazaratu gabe, euskaldunik ba-gerala munduan eta bertan ibiltzen ere ba-dakigula erakustearren argitaratuko nuala esan diodanean, amor eman du. Azkenean bederen.

Orain urte bi, Holanda'ko Schiedam uriak 700'garren urte berezia ospatzen zuan: bere uri eskubideak lortu zituanetik, uritzat ohartu zutenetik, zazpireungarren urtebetetzea, alegia. Rotterdam'en ondoko iria, 100.000 bi-


zilagunekin. Eta ara zer bururatu zitzaion bertako burgomaestre dan Lems jaunari: Eskutitz bat etzion egin, ba, gure Julen'i, kartzelara bertara, bere uriko seme-ordeko edo seme ospetsutzat artzen zuala esanaz?

Gure apaizak, Zamora'ko kartzelatik erantzun: iñongo seme izateko bertako, lekuko, izkuntza bear zuala jakin lenengo. Orain arte diskoetatik eta aurrerantzean kasetatik ere ikasten diardu. Holandera guztiz menderatu ez arren, esan-entzun egin ditu gauzatxoak. lurralde aietan.


Urrillaren erdi-aldean egona da bertan Aiek bideko gastuak ordainduta, egazkiña artu ta Inglatera'ra txango, gero Holanda'ra salto egiteko Amsterdam'en bertakoak berari itxaroten, amabi egun luzeetan lagun egiteko. Alkate bigarrena edo daná dala-koa joan zitzaion abegi gozpa egitera Gero batera ta bestera ibilli: Schiedam eta nik dakit beste zenbat leku. Amsterdam'en beren margolari klasikoen Museo ta Rotterdam'en munduko ospetsu guztiena ikusi omen du. Inguruetako alderdi zaar jatorrak... ainitz erregalu... kazetetan agertuz ta berri-ri zai duanean joateko eskeintza...

*Erri dotore, garbi, bizi-mailla
a n d i k o, k o n f o r m i s t a s a m a r r a
o m e n. A l a b a i ñ a, l e k u t x a r r a g o e -
t a r a j o a t e k o p r e s t e g o n d a n a k e z
d u t u s t e a u k e r a r i k g a l d u k o d u a -
n i k. G a i ñ e r a H o l a n d e r a i k a s i k o
d i g u O r a i n g o a n « b a i t a e r e i k a r a -
t z e n H o l a n d r e s e n i b a r r a » a r a k o
a b e s t i a r e n i k e z d u g u s o m a t z e n.
I p a r r a k e z d i g u i k a r a r i k e r a g i t e n,
e z o r i x e. I p a r r a k e z.*

("GOIZ ARGI"...?)



Schiedam erri txukuna.



Andra holandar orrekin asi zan Julen
idazkizko aremanetan, Ho-
landa'ra bidean baiño leen.

IJITOAK ETA GU

Aspalditik dugu ezaguna gu-
rean arraza orren semeen izena:
ijitoak esanaz, alan-olango jende-
modua ekarri oi dugu gogora.
Gure artean erririk erri, alperke-
rian, nagikerian eta lapurretan
dabilen erri loia, zikiña, lotsaga-
bea.

Ijitoen beste ezaupiderik ez
geunkan.

Urte batzuk dirala, ijitoentza-
ko eskolak jaso zituela, jakin gen-
duan: Gazteiz'en gugandik urrean,
bat.

Ara baiña: Juan de Dios Rami-
rez Heredia ijito-seme jakitunak
idazti bat emon dausku, Bruguera-
argitaldarian (Barcelona, 1974,
«Nosotros los gitanos»).

Arritzekoa, neretzat beintzat,
ijito bat olako maillan ikustea.
Ta are arrigarriago, ijitoen alde
esaten dituanak irakurtea.

Etnia berezia dirala ez ezik, berezitasun orretan jarraitu bear dabela ere diosku bero-bero. Bes-teen artean errikotu ta etxekotu? Bai orixe. Ala ere, euren ijitotasu-na galdu barik. Inun arraza-zale-rik ba'da, or dugu bat.

Andaluzia'n-eta dituzten beste lanbideen berri zeatza damosku. Apur bat arte bere usaia dariola. Ba-dirudi giza-kristau birtute geie-nak ijitoengan mamitu dirala. Jainko-ardurapenaren siñismena ta sena biziro gordetzen ei dabe. Biaramonean zer jango ote ardura ta kezka gabe egoteraiñokoa ere bai? Ene ustez ori ardurapenazko ustea barik, alperkeri garbia. Alan ta guzti be, parkagarria da idaz-lea, arraza madarikatu onen al-dezle sutsua agertzen ba'da. Iji-toen kultura gauza anditzat jotzen du. Egia esan, flamenko-gauzetan noraiñoko zer ikusia dauken ba-karrik dakar euren kulturaren ezaugarritzat. Arrazoi eskasa, zi-ñez. Izkuntzari dagokiozanak gu-retzat jakingarriago: munduko za-rrenetarikoa, sanskrito jatorriz-koa, 10 bat milloek mintzatua (Su-yag; gure-amaro; bat-yek; eguzki-kan; etxe-quer; Jainko-De-vel) Gramatika ta Iztegia gerta-tzen omen dabiltz. Gure idazle tre-be Karlos Klaberia'ren aipamen

ederra dagi, kalo-izkera ezagutzen daualako. «Gazte ijitoen artean, gurari bizia dager, kalo-izkuntza Españi'n bere errauts beroetatik biztu dadin» (98'garren orrialdea).

«No se trata tan sólo de conseguir la convivencia pacífica de unos grupos étnicos distintos en mentalidad y cultura, ya que esta convivencia sólo podría realizarse tras una fase larga y programada de acciones que consigan la eliminación de aquellos factores que piden el entendimiento de los hombres, sino la justa valoración de los matices con que cada grupo se manifiesta a causa de su diferente cultura» (13'garren orrial-dea).

("AGUR"...?)

ERRATA: 52. orrialdean

10. lerroan ARTO BERO

IKASTOLAK KANPORA!

Umeen eziketa geroko aberri-gizonen sorleku eta bataio-arria dela eta, euskaldunok ez ginen konforme lengo euskalerrietako ikastetxe edo eskolekin. Euskalduntasunaren zerbitzutan ipintzeko ez ziren egoki, ez ziren gauza, inolaz ere. Beste akats askoren artean, euskal historia, euskal kultura eta euskal izkuntza bazterturik uzten zituzten. Euskal nortasuna, zer esanik ez, edo irato edo alienatu, besterendu egiten zuten.

Eta ikastolak jaio ziren, erritar zintzoen bultzakadaz, izerdiz eta nekez. Ikastola itzaren jatorria aparte utzirik, izkuntza aldetik diot, linguistikak gabe soziologiak ematen zion zentzun eta esangura berezia, jatorra, bereizgarria. Eta soziologiak emandako zentzun ainako zama astuna ezartzen zien gizarteak. Laguntzarik eza batetik eta bestetik betegarri, osagarri moduan artzen zirela. Osagarri direla? Zerena? Besteentzatsune, oker eta kaltearena, agian? Anormal da guztiz egokera ori; eta kaltegarri oso-osoa.

Politika eta gizarte arloetan gure bizitza normaltzen eta zuzentzen doan neurrian, irakaskintzaren arlo garrantzitsuan ere normalizapena bear dugu, au da, orainarte osagarritzat euki duguna euskarri bakarra edo nagusia bilakatu bearra. Besteak gerta daitezke betegarri, aldi baterako beintzat.

Beraz, ikastolak kanpora! Gaur arte gure gizarteko "euskarri" bakarrentzat izan duten zentzunean eta egoera bereziari begiratuta, eskoladiko ikastetxe, ikasleku, eskolaguzti-guztiak "ikastolak" biur ditzagun. Bereziak ez, normaltasun barruan bereizgarri, bai. Bestela, beti ibiliko gara errenka, eldu ezinik, inoren pentzuan, inoren anka-pean.

Euzkadiko irakaslekuak oro egin ditzagun ikastolak. Lendabizi izkuntzak dakarren zentzunean eta gure gizarte egoerak emaniko esan-nai jator, apartekoan ere bai. Ez dago beste biderik. Osterantzean, diru eta laguntasun aldetik estu ibiliko dira beti; eta are txarrago dena, gure errietako ume eta gaztetxoan artean mentalitate okerra irauterazi egingo dute: geienok, normaltasun esparruan gabiltzanok, eta beste jende modu ori, amets zoroen atzetik edo bide urrunetan galduta dabilena, alegia.

Euskal Unibertsitatea lur trinkoan eraikitzeaz dugularik, gure ikastolak oraindino lau take zarreri oztaz ozta loturik.

Ea nor den gure artean bidetik ir-tenda dabilena eta elburu zoroak amesten dituen!

("EUKADI"; 50., 1977)

ERRATA: 56. orrialdean

18. lerroan TAKET



IKASTOLA
(Laukariz-Bizkaia)

ESCUELA DE BARRIADA DE VIZCAYA

(Espainia-ko gerra aurrean)

Behean texto berdina euskaraz, gerra ondoan arduraz ezabatua. Laukariz-en bezala beste leku askotan ere bai.

ORRIA ALA ORBELA?

Astero kaleratzen da Bizkaiko "Hoja del Lunes" Bilbon aterata. Aste-gun orretan ez baitago beste izparringirik, askok edo geienek, esateko moduan, erosten dugu astegun buruzurian daukagun bakarra.

Aspaldion, edo komenziduta daudelako edo salmenta obeagoa egiteko, eusko eta euskal gaiak ukitu ere egiten diete. Euskalerriko kezka bizi bizi argitara oi dituzte edozein orrialdetan. Nola, baina?

Gauza batzu naikoa seriotasunez eta ganoraz erabiltzen dituzte. Baina, tartean tartean andik emendik zirikada gaiztoak ere sartzen dakie gure arazoei buruz. Edo ez dakie zelan esan edo ez dute nai. Kazetariak euren naiko biurri ematen digute onen edo aren berri. Eta irakurleen txokoan edo dena delakoan sarritan agertzen dira luma pozoidunak. Txarraren kontzeptu elementalenak argi barik oso ilun azaltzen dituztela. "Raza", "nación", "etnia", "nacionalidad", "cultura", "lengua", "historia" eta abarrez idazten duten irukurle inozoek, geienek, idearik ere ez dute izaten eta baztarrak naspiltzen baino ez dira ari. Bitartean, izparrin-

giaren arduradunek, olakoei ateak zabaltu eta beren aldetik ez dute inoiz ere zeaztasunik eta argigarririk ekartzen. Batetik ematen diguten laguntasuna, bestetik ezereztu eta aldrebestu egiten dute. Itxurak egin nai, baina azerikumea beti azeri.

Tamalez irakurtzen dut askotan asteleneroko albiste emaile ori. Bere ostro ugariei begiratu eta orri mardoen ordez orbela ote dakarren geiagoko kezkatuak eta samindurik gelditzen naiz. Asieran gure lagun zirela koan erosten banuen, orain etsaiek zelako jokoa ari duten igartzeko erosi oi dut. "Hoja" ori, ago biko orri arriskugarria. Ondo oratu bear zaio ebaki gaiztorik ez egiteko. Egia esan, bere artikuluaren izenpenak ikusita ez da arritzekoa.

("EUKKADI"; 66. zenb.)

BELLIDO'REN OARKIZUNAK

Idazlen mamintsuak agertu ditu Bellido jaunak gure DEIA-n euskeraren inguruan. Irugarrenak dekarrenaz eta urrengorako agindu duenez, euskera simpletu edo asmoz diardu. Orretan eztabaidan sartzeko asko jakin bear da: linguistika orokorra, euskeraren beraren egitura, munduko beste orrelako gertaeren berri zeatza eta, gure izkuntzaren barne egituraz gain, kanpo egoeraz ere oarpen osoa eta ardurazkoa. Arlo zabal-sakonegia niretzat. Beraz, beste puntu bati ekin bearko.

Bere bigarren lanean auxe esaten du gutxi gorabera: beste batzuk esandako kultur eta gizarte eta politika zapalkuntzazko arrazoiak bigarren mailako bezala gelditzen direla bereztat. Euskeraren gaxtasuna izan dela arrazoi eta zio nagusia euskeraren galeran.

Euskera ikasteko zaila edo erraza? Beste izkuntzen aldean menderagaitzago? Bego auzia izkuntzazaleentzat. Besterik esan nai dut gaur nik. Izkuntzak berak jarritako oztopoez landa, kanpo aldetik jarri zaizkionak ain izan dira gogorak, gaiztoak eta jarraitukoak, ezin daitezke bigarren mailakotzat artu. Eurok galazi bai diote izkuntzari zukeen erraztasunaz baliatzen edo zeukan zailtasuna biguntzen. Azken batean, izkuntza aldetiko oztopoa lenagokoa izan arren, kanpo aldetikoak izan dira beste ori erabatekoa eta bein-betikoa egin dutenak. Izkuntzak oben egin eta izkuntzaren egoerak bekatu. Bigarren utsegina larriago. Lenengoa zuzentzeko norberak baitu aukera; bigarre-

na, aldiz, zirikatzaile gaiztoaren baieztean egon. Ez dago bigarren mailakotzat artzerik.

Izkuntza bat, zailtasun edo erraztasunekin, ez dago buru utsean, adimen soilean, eskola ordu bakarrean. Beste mila gauzek baldintzatu eta baldintzapetu egiten dute: inguruko giroa, gizarte gogoia, sentipenen otzberoak, sikoloji arrazoiak, eguneroko bizi-kategoriak, egiten digun emendioa (urdaila beterik eramaten zein burua utsik erakusten) eta beste ainitz arrazoi daude. Egin dezagun euskera zaila dela. Baina zaila dela oartu baino len edo oartu ere egin gabe, zenbat guraso eskaldunek ez dute eten semeengan euskeraren katea, diru geiago irabazteko edo gizar-tean beste kategoria "andiago" bat izateko ametsuz? Edota bildurrez? Eta beste zenbat kanpotarrek ikasi dute gurea zaila ala erraza den kon-turatu barik eta, are geiago, ikasi gu-rra ote zuten aurretik pentsatu baino

len? Askok ez dute euskera ikasi; bizitzak irakatsi die. Etorri berri izan diren lekuetan alako giroa eta bizi inguruneak aurkitu dituzte, eurak euskeragana jo orduko euskera bera joan zaie bidera, buru-biotzetara. Zorritzarrez ez dira geiegi olakoak.

Euskera errazago egiten baduzu ere, beraganako bideak eta berarekiko jarrerak errazagotu ezean lanak izango dituzu ikasten. Zailago izanik ere, lanak izan dituzte askok ikasi barik egoten. Zail edo erraz, bizia dugu preminago eta zirrikagarriago. Bizia biziago, zail-erraztasunak baino. Errusoa ala sueziera errazago? Nik ez dizut ikasiko ez bata ez beste. Ez dudalako zer ikusirik nire bizi-tzan aien zailtasun edo erraztasunarekin. Arinago ikasiko nizuke beste zailago bat, bizitzak sakatzen banau.

Guzti onekin zera esan nai dizut: erraztasun arazoan sartu gabe, arrazoi makala deritzat zeure arrazoiketa-ri, politikazko eta gizarteko lengo

egoerari bigarren mailan ezartzeraino garrantzia kendu gurari, alegia.

Izkuntza batek beste kanpoko egoera eta baldintzak ditu lagun beti. Arrotzak badatoz alegin sistematikoz ikastera, aren zailtasuna daiteke ikasnekearen arrazoi andiena. Kanpo egoera bigarren mailako arrazoia, zailtasuna gutxituz edo andiagotuz, aldekoa edo aurkakoa den arauera. Baina, izkuntzaz tradizio bidez jabetu bear bada norbait, arbasoengandiko izkuntza aria berez berez, zailtasuna arren, emango diete gurasoek seme-alabei. Arik eta kanpoko egoera la-tzak, garratzak eta larriak guraso-semei aria uts eragin artean. Oraingoan kanpo egoera, izkuntzaz atetiko-a, izango dugu arrazoi andiena eta okerrena. Galdera bat nik: euskera orainarte zergatik galdu da geien bat? Erdaldunak euskaldundu ez di-relako ala euskaldunak erdaldundu direlako?

Ba liteke zeuk nire oarpenak onartu ez egitea. Ez dut idatzi eztabaidarako gogoz eta asmoz. Ez orixe. Baizik eta euskaldun eta euskaldungai guztien mesederako. Orrela artuko didazula-koan, saia gaitzen guztiok euskera-ren egitura eta oitura ere errazago egiten.

("EUZKADI"; 1978, IV, 6)

ERRATA:

1. lerroa IDAZLAN
3. lerroa DAKARRENEZ

XALBADOR OHE GABE IL

Bat-batean gaixotu ta andik laster il egin zitzaigun Xalbador bertsolari sakon gozoa. Ustegabeko eriotza, bere lagunei inguruan biltzeko eretik eman etzi-ena. Azken borrokaldiko ordua lasai artzeko erarik ez.

«Denak orrarat datoz azkenian», abestu zuanak bertara gabe oman bear azkenengo urratsa. «Ohe gaixoa» barik Xalbador? «Zutan behar degu guk il», tris- turaz esan zuanak beste toki batean utzi bere azkenengo tris- tura.

Olakoxe pentsamentuak datoz- kit burura, Xalbador omenaldia- ren erdian il zalako berria jaso ta aren beñolako bertsoak go- goratuaz.

Ara zer abestu zuan orain be- deratzi urte, ekainillaren 11'gn., Donostia'ko Bertsolarien Txapel- ketan, 1967-gn urtean:

.....
ez zeradea zuhaur izan zu
maitasunaren ohandze?
Ohe gaixoa, zu maitagarri,
zutaz ez nitaike ixil,
zutaz behartu gabe egun bat
munduan ez daike ibil;
denak orrarat datoz azkenian
izanikan ere abil,
zutan sortu ta zutan aziak
zutan behar degu guk il.

(Auspoa, 67)

Ala ere, «maitasunaren ohan- tze» Xalbador'entzat Euskalerr- ko bazter guztiak izan dira-ta, gu- re atsekabea zerbait arindu da, euskaldun orok, onezkeru, esa- ten diardute-ta: Xalbador, zutaz ez nitaike ixil.

("GOIZ ARG"....?)

ERRATA: 66. orrialdean

10. lerroan EMAN

GERNIKALDETIK

S.O.S

Gernika eta inguruetako errixkak, auzo eta auzuneak ondo euskaldunak izan dira orainarte. Antxinatik zekarten euskalduntasuna, sendoa eta jatorra, bizi-moduak eta bizi-baldintzek babestua. Itsas-aldera arrantzaleak eta lur barruan baserritarrak eta osterantzeko bearginak. Eskolarik ezak zegian kaltea bizi-eskolaz sendatu dute askotan zati on batean. Urteotako, telebistak, irratiak eta paper uriolak ez dute ito euskera Gernikaldekoen ezpainetan. Industria andirik ez zegoen eta alde orretatik ez du eraso bildurgarririk izan. Azkenengo Urteetan etorkinak ere eldu dira ugari. Etorri berriok ez dira arrotz sentitzen eta bertakoak ez dira arrotzu. Baina...

Etorkinak gero eta ugariago. Bertako semeak gero eta telebista eta bestelako komunikabideen indarrez menperatua. Egoera latza. Asiak dira emengo neska-mutil gazteak euskalduntasunez makaltzen. Udaldian Bilbo eta beste uri andietatik ozte andia etortzen da beti; eguneko edo egun gutxiko joan-etorria izaten da. Gaitz erdi. Baina...

Orainarte Bilbotik onako bidea, Autzaganen mendixka, bide medarra, gaitza eta bat ere eroso ez zena. Orretzek geldiarazi du jende asko onagino eldu ez dadin. Orain, berriz, Autzaganen konponzen dabilta. Bidea zabalagotzen, biur-guneak kentzen, zubiak-eta jasotzen... Emendik laster garraioak errazago egin al izango dira Gernikaldera (lantegiak-eta eraikitzeko errea eskainiz); udaldian ez ezik, urte guztian zear jendea ibiliko da ara eta ona, batera eta bestera, bertokoak kanpora irtetzen eta kanpotarrak bertoratzen. Etorkinak geiago kokatuko zitzaizkigu emen. Bilbo aldetiko bisitariak, baita eusko erdaldunak ere, gero eta geiago tarteratuko zaizkigu, noski. Ez ordu batzu bertan emateko, egun osoa eta aste-azken osoak igaro-asmoz. Ingu-ruetan aberatsen txaletak ugari samartuko dira. Erdalkeria ateetan daukagu. Erdalkeriak, dakigunez, ez du itxaroten, etxe barrukoak prest ote daude begirunez; indar bortitza da, bein sartuz gero nagusitu oi dena...

Zuhur euskaldunak; azkar euskaltzaleak! Gernikalde barrukoak gertatu egin bear gara ordua datorrenerako. Olatu gogorak datozkigu kai barnera. Zain dezagun gure aterpe bare-garbia: Betoza ordu onean aurrerapenak; etorkinak eta bisitariak. Baina, gauden gu ordu egokian. Ikastolak, eskola nazionalak, ikastetxe, erriko talde eta erakunde guztiak ekinalean, barrukoak euskaldunagotzen eta datozkeen berriei euskalduntzeko erretia ematen. Zabalbezate lenbaiten bide nagusi ori, guztion aberasgarri. Ba-

ruko ek, euskalduntasunari uko egin gabe, kanpotiko aberaskiak eskura ditzaten. Kanpokoek, beren izateari ukorik egin barik, gure alderdi ederrez gozatu eta gure euskalduntasuna aintzat artuz, euskal kutsuz igurtzi daitezten. Aurrerapenaren bide berriak guztion onerako izan bear du. Ez bakan batzuren mesede eta beste askoren kalte.

Udaletxeokak, ikasle-irakasleak, dendariak, partikularrak, politika-alderdiokak, gernikar guztiak zut!

Izan ala ez izan, or dago arloa... Autzagane bidean. Gogoratu Azkue zenaren esana: "Zuen arerioa izango dana, mendi orren atzean bizi da" ("Urkiolako Igarlea", *Euskalzale*, 1897-1899).

("EUKADI", 1978, XI, 30)

ERRATA: 69. orrialdean

15. lerroan ZAIKIGU

23. lerroan DAUDEN

AURKIBIDEA

<u>lanak</u>	<u>orrialdeak</u>
Argi dago eta oker.....	25
Aurkezpen bat.....	11
Bellido-ren oarkizunak.....	60
"Diálogo" ezina.....	33
Don Klaudio eta euskaltzaleak.....	5
Eskola Maisuek.....	9
Euzkadin erderaz, Espainian euskaraz.....	39
Gernika-ko "Aizerrota" ibili dabil.....	17
Gernikaldetik S.O.S.....	68
Holandresen ibarra.....	46
Ijitoak eta gu.....	51
Ikastola berria.....	35
Ikastolak kanpora!.....	54
Izana eta izena.....	28
Jesukristo-ren erraiak.....	13

<u>lanak</u>	<u>orrialdeak</u>
Korpus Eleiza.....	31
Negoziagai eta negoziogai.....	14
Omena-aldiak.....	22
Orrez gainera.....	20
PSOE-ren elebitasuna.....	42
Xalbador ohe gabe il.....	66
